



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

2009

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz, zerga eskatzen du honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua.

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua.

Hauexek dira Zergaren zerga-egitateak:

1. Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.
2. Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatu dena, baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo-matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.
3. Jarraikoak ez daude Zergaren kargapean:
 - a) Antzinatasuna dela-eta erregistroan baja emanda egonik, aparteko kasuetan erakustaldietan, lehiaketetan eta lasterketetan ibiltzeko baimena jaso lezaketanak, horretara mugaturik daudela.
 - b) Trakzio mekanikodun atoiak eta erdiatoiak, zama erabilgarria 750 kg baino gutxiagokoa dutenak.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua.

1. Zergatik salbuetsita egongo dira:

- a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki-erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.
- b) Atzerriko herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul-bulegoetako kideen, eta kreditatuta dauden agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.
Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionarioak edo kideenak.
- c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.
- d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.
- e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

eranskinetako A letran adierazitakoak; eta minusbaliodunen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespena inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, urrituek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, minusbalioduntzat hartuko dira legez %33ko elbarritasuna edo elbarritasun handiagoa duten pertsonak.

Idatz-zati honetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Hemen ezarrita dauden salbuespenak arautuak dira, eta erreguzko izaera dute. Salbuespenok eskumena duen udal-organoak emandako administrazio-egintza adieraziaren bidez emango zaizkie eskatutako betekizunak betetzen dituzten subjektu pasiboiei, haiek eskabidea egin ondoren. Eskabide horretan, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia jaso beharko dituzte, eta, horrekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Zirkulazioko baimenaren fotokopia.
- Elbarritasuna egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiak edo beste organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboa aurkeztea.
- Zinpeko aitortpena, ibilgailua minusbaliodunak ez beste inork erabiliko duela adieraztekoa.

Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauko 2.1d) artikulua testu zaharrean ezarritakoa aplikatuz zerga hori ordaindu beharretik salbuespena egon diren ibilgailuetatik foru-arau honek artikulua horri emandako testu berrian ezarritako betekizunak betetzen ez dituztenek testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea izango dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak; ez du atzeraeraginik. Hala ere, likidazioa irmao izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

- f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.
- g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

2.- Honako hoberi hauek ezarri dira:

a) Zergaren kuotaren % 100eko hoberia izango dute ibilgailu historikoek edo gutxienezko hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek, ibilgailuak fabrikatu ziren egunetik kontatzen hasita, edo data horren berririk ez badago, lehen matrikulazioa egin zenetik, edo hori ezean, ibilgailu mota edo aldagai hori fabrikatzeari utzi zitzaion urtetik hasita.

b) % 75eko hoberia izango dute energia elektriko edo energiako sistema hibridoen bitartez dabiltzan ibilgailuek.

Hoberi hori, oro har, eskatu egin behar da eta hoberia ematearen ondorioa eskabidea egin eta hurrengo ekitalditik aurrera izango da; ezin izan daiteke atzera-eraginezkoa. Hala ere, likidazioa irmo izan baino lehen eskatzen bada hoberi fiskala, hoberia emango da zor-sortzapenaren datan hura gozatzeko baldintzak betetzen badira.

c) Aipaturiko zergaren kuotaren % 3,5eko hoberia izango dute banku-helbideratzearen bidez kobratzen diren Ibilgailuen gaineko zerga horren ordainagirik. Hoberi hori ez da emango banku-itzulketa gertatzen bada, eta hoberia jaso ahal izateko, beharrezkoa da helbideratze-eskabidea martxoaren 1a baino lehen egitea.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira martxoaren 10eko 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

V. KUOTA

6. artikulua.

1. Zerga tarifa-taula honen arabera eskatuko da:

Potencia y clase de vehículo <i>Potentzia eta ibilgailu mota</i>	TOTAL € <i>GUZTIRA €</i>
A) TURISMOS	
A) IBILGAILUAK	
De menos de 8 caballos fiscales <i>8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak</i>	23,79
De 8 hasta 11,99 caballos fiscales <i>8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak</i>	64,24
De 12 hasta 13,99 caballos fiscales <i>12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak</i>	114,63
De 14 a 15,99 caballos fiscales <i>14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak</i>	158,67
De 16 hasta 19,99 caballos fiscales <i>16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak</i>	203,97
De 20 caballos fiscales en adelante <i>15,99 zaldi fiskaletik aurrera</i>	249,27



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

B) AUTOBUSES	
B) AUTOBUSAK	
De menos de 21 plazas <i>21 plaza baino gutxiagokoak</i>	157,04
De 21 a 50 plazas <i>21 plazatik 50era</i>	223,69
De más de 50 plazas <i>50 plaza baino gehiagokoak</i>	279,59
C) CAMIONES	
C) KAMIOIAK	
De menos de 1.000 Kg. de carga útil <i>1000 kg-ko karga erabilgarri baino gutxiagokoak</i>	79,74
De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil <i>1000 kg eta 2900 kg bitarteko karga erabilgarrikoak</i>	157,04
De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga útil <i>3000 kg eta 9900 kg bitarteko karga erabilgarrikoak</i>	223,69
De más de 9.999 Kg. de carga útil <i>9999 kg-ko karga erabilgarri baino gehiagokoak</i>	279,59
D) TRACTORES	
D) TRAKTOREAK	
De menos de 16 caballos fiscales <i>16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak</i>	33,32
De 16 hasta 24,99 caballos fiscales <i>16 eta 24,99 zaldi fiskal bitartekoak</i>	52,38
De más de 25 caballos fiscales <i>25 zaldi fiskal baino gehiagokoak</i>	157,04
E) REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHICULOS DE TRACCION MECÁNICA	
E) TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK	
De menos de 1.000 Kg. de carga útil <i>1000 kg-ko karga erabilgarri baino gutxiagokoak</i>	33,32
De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil <i>1000 kg eta 2999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak</i>	52,38
De más de 2.999 Kg. de carga útil <i>2999 kg-ko karga erabilgarri baino gehiagokoak</i>	157,04
F) OTROS VEHÍCULOS	
F) BESTELAKO IBILGAILUAK	
Ciclomotres <i>Ziklomotoreak</i>	8,36
Motocicletas de hasta 125 c.c. <i>125 zentimetro kubikora arteko motozikletak</i>	8,36



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c. <i>126tik 250 zentimetro kubikora arteko motozikletak</i>	14,27
Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c. <i>251etik 250 zentimetro kubikora arteko motozikletak</i>	28,59
Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c. <i>501etik 1000 zentimetro kubikora arteko motozikletak</i>	57,12
Motocicletas de más de 1000 c.c. <i>1000 zentimetro kubiko baino gehiagoko motozikletak</i>	114,24

2. Ibilgailu-mota zehazteko, arau bidez ezartzen denari jaramon egingo zaio, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik, turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, Zergak autobusa balitz bezala kargatuko du.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, Zergak kamioia balitz bezala kargatuko du.

b) Zerga honen ondoretarako, motogurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradaren edukieraren arabera ordainduko da Zerga.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, Zergak aldi berean eta bereiz kargatuko ditu arraste-indarra duen ibilgailua eta hark herrestan daramatzen atoiak eta erdiatoiak.

d) Edukiera dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak zirkulatzekeo gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatu hasten denetik, kasuan kasukoa.

e) Makina autopropulsatuengatik, alegia, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman gabe herri-bidetik berez ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozkien tarifak kobratuko dira.

f) Nolanahi ere, tarifetako D) letran agertzen den “traktore” izen orokorrak barne hartzen ditu hala kamioi traktoreak nola “obra eta zerbitzuetako traktoreak”.

g) Zaldipotentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da, eta Ibilgailu Araudi Orokorrean, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikulua segituz, V. eraskinean agindutakoa kontutan hartuta.

h) Zerga honen ondorioetarako, turismotzat hartzen dira auto-karabanak eta, beraz, zaldi fiskalen arabera ordainduko dituzte zergak.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua.

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere, horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da, edo ibilgailuari Trafiko Burutzan baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

3. Ibilgailuen lehen eskuraketa denean, edo haien bajaren kasuan ere, kuotaren zenbatekoa egutegiko hiruhilekoen arabera hainbanatuko da, alta edo baja gertatzen den datari dagokiona barne.

Halaber, kuota hainbanatuko da ibilgailua aldi baterako baja emanda badago, lapurtu edo ebatsi dutelako; hori guztia aldi baterako baja dagokion erregistroan jasotzen den unetik hasita.

VII. KUDEAKETA

8. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua.

Udalak autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua.

Zerga ordaindu delako frogagiria Udal Administrazioak emandako ordainagiria izango da.

11. artikulua.

1. Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenenek, aldezturik Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

2. Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Burutzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoretarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.

3. Trafiko-burutzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko aldezturik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

Matrikulazio berrietan, edo ibilgailuari egindako aldaketek zerga-ondoretarako kalifikazioa aldatzen dutenean, interesatuek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote Udal Administrazioari, Zergaren matrikulari eransteko, 30 eguneko epean, matrikulazioa edo aldaketa egiten den egunetik hasita:

- a) Zirkulazioko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK.

Artículo 12.-

Salbuespen gisa eta udal erregistroak garbitzeko sistema moduan interesdunak egiazta dezake ibilgailuaren gabezia Lurraldeko trafikoko Buruzagitzan behin betiko bajaren bidez eta agiri frogagarri baten bidez. Kasu honetan udalak egiaztatutako data eta aldezturik igorritako ordainagiriak ezeztatu ditzake.

VIII. XEDAPEN IRAGANKORRA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jartzen den egunean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan mota bateko nahiz besteko zerga-hobariren bat dutenek hobariaz onuratsen segituko dute aipatutako zerga horri dagokionean,



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

hobaria iraingitzen den egunera arte, edo, hobariaren onurak mugaegunik ez badu, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne dela.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2003ko urriaren 15ean egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko abenduaren 12an. 2004ko. Ondoren, behin-betiko aldatu zen, lehengoz 2004eko abenduaren 7an, bigarrenenez, 2005eko urriaren 14an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2005eko abenduaren 23an, hirugarrenenez, 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an., eta laugarrenenez, 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an.

Aldaketa hau 2008ko urriaren 17an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2008ko abenduaren 04an. 2009ko urtarrilaren 01ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean. (BAO 251.zk. 2008, abenduak 31. Asteazkena).